

FUNTSEZKO BAZKIDEAK

Hornitzaileak:

- Zerbitzariak alkitatzeko enpresa bati erosiko diegu serbidoreak, beraz, gure beste hornitzailea serbidore alokatzeko enpresa da. Zegama enpresak lagunduko digu alderdi honetan.
- Gure biltegia ordenagailuan egongo da, eta karpeta batean edukiko dugu guztia ordenatuta, baina taldeko guztiak sartu ahal izango gara aldaketak egitera. Ez dugu hornitzaile ofizialik izango, baina intelijentzia artifizialaz baliatuko gara material onena izateko. Honetarako FNAC enpresak deskontu bat egingo digu eta hileroko ordainduko diegu haien materialak uzteko eta guk beraien iragarkiak egiteko
- Jon gure informatikaria da eta berak web-guneko zati guztiak programatuko ditu ikasleek behar dituzten gauza errazago aurkitu ditzaten.

Funtsezko baliabideak:

- **Naroa:** Bezeroekiko arretan arituko da. Haien zalantzak eta kexak argituko eta konponduko ditu, bai telefono bai gmail bidez. Gainera, ikasleek dituzten arazoak konpontzen saiatuko da.
- **Jon:** Finantziazioen arloan lan egingo du. Enpresaren inbertsioak, salmentak eta erosketak kudeatuko ditu.
- **Danel:** Ikasleek ikasteko balio duen informazioa bilatzen arituko da, eta. Hau egitean, Oierri emango dio erositakoa berak kudeatu ahal izateko.
- **Oier:** Danelek bidaltzen dion informazioa heltzen denean, ordenagailuan antolatuko ditu, ikastola edo institutuei materiala eman behar zaienean, informazioa bilatzen denbora ez galtzeko.

Elkarteen motibazioa:

- Gure enpresarekin, ikasleek, familiek eta gure enpresak berak onurak izango ditugu. Horrela, guztiok egongo gara pozik eta enpresaren garapena sustatuko dugu.

- Ikasleen errendimendua hobetuko denez, nota hobeagoak egongo dira eta horren ondorioz, ezagutza geroz eta handiagoa izango dute ikasleek eta eskualdeko herrietan ikaskuntza hobeagoa egongo da.

Optimizazioa eta ekonomia funtsezko bazkideekin:

- Bezeroek ahoz-ahoz gomendatuko dute gure web-guneak eta guk beraiekin harreman pertsonalagoa edukiko dugu.
- Baita, akordio baten bidez, bat-egin dezakegu beste enpresa handiago batekin, serbidoreen zerbitzuak eskeintzen dituen enpresa batekin hain zuzen ere, horrela efizienteagoak eta emaitza hobeak eukiko ditugu.
- Inteligentzia artifizialak enpresaren garapenean ere lagunduko digu publizitaterako iragarkiak egitez. Horrela, bezeroak hurbilduko dira haien laguntza eskatzera.

Arriskuen eta ziurgabetasunen murrizketa:

- Webguneekin eta ikasle eta familiei salduko diegun ikasketa materialarekin, hileroko diru-sarrerak zuirtatuko ditugu, ondorioz, konfiantza lortuko dugu enpresarako gutxinaka arriskuak eta ziurgabetasunak ekidingo ditugulako.